# EXFIBAR
# 2024

LV. Seilu erakusketa
LV Exposición filatélica




FILATELIA ETA ANTZERKIA
FILATELIA Y TEATRO

---

EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK
JORNADAS DE TEATRO DE EIBAR

kutxabank

ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIA ELKARTEA
+ EIBARKO + EIBAR

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIA ELKARTEA



e-mail isidrorejo@gmail.com
Apartado, 33
20600 EIBAR (Gipuzkoa)
MEDALLA DE FESOFI 2021

# BATZORDE ANTOLATZAILEA
# COMISIÓN ORGANIZADORA

**PRESIDENTEA / PRESIDENTE: Isidro Rejo Lorenzo**

**IDAZKARIA / SECRETARIO: Juan Gómez Barranco**

**DIRUZAINA / TESORERO: Alberto Elizondo Retolaza**

## 2024ko azaroaren 24tik abenduaren 1era

## Del 24 noviembre al 1 de diciembre del 2024

## (Azaroak 30 itxita - cerrado el 30 de noviembre)

**Ordutegia /Horario:**

**Astelehenetik ostiralera: 18:00 - 20:00 De lunes a viernes**

**Larunbata eta igandea: 11:30 - 13:30, 18:00-20:00 sábado y domingo**

D.L. / L.G.: SS-1559-2012




## Posta-marka

**Horario del matasellos**

**Día 26: 10,30 – 13,30**



# FILATELIA ETA ANTZERKIA

# *FILATELIA Y TEATRO*



Exposición Filatélica 2003 dedicada al grupo de teatro de Elgoibar.



Avilés 2020 - Centenario del Teatro Palacio Valdés.



Madrid 2017 - Reapertura del Teatro Real.




Cáceres 2014 - 25 Festival Internacional de Teatro Clásico.




Mérida 2023 - Festival Internacional de Teatro Clásico.




Zaragoza 2003 - Teatro Romano.



1974 - Hastapenak

## EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK

Atsegin handiz jaso dugu Arrate Elkarte Filatelikoaren gonbidapena, aurten omenduko dituztenen artean egoteko; eta oso eskertuta gaude, Exfibar 2024 LV Erakusketa Filatelikoaren zigilu-marka izatea ohorea baita guretzat. Hiru urte falta dira Jardunaldien 50. ediziorako, eta Eibarko elkarte filateliko beteranoak, Exfibarren 55. edizioarekin, aurrea hartu digu betetzera goazen mende erdi honetan.

Dagoeneko ari gara Jardunaldien berrogeita zazpigarren edizioa ixten, berrogeita zortzigarrena prestatzen, eta berrogeita hamargarrena izango denaren zirriborroa egiten. Baina goazen harira, eta saia gaitezen Eibarko Antzerki Jardunaldiak zer izan diren eta zer diren laburbiltzen.

## *JORNADAS DE TEATRO DE EIBAR*

*Recibimos complacidos la invitación de la Asociación Filatélica Arrate para formar parte este año de su extenso listado de homenajeados, a través del honor de ser el matasellos de la LV Exposición Filatélica Exfibar 2024. Faltan tres años para la edición número 50 de las Jornadas y la veterana agrupación filatélica eibarresa, con 55 ediciones de la Exfibar, se adelanta a ese medio siglo que cumpliremos.*

*A día de hoy estamos cerrando la edición cuarenta y siete de las Jornadas, preparando la cuarenta y ocho, y esbozando las que serán la quincuagésima edición, o lo que es lo mismo, los cincuenta años de Jornadas de Teatro, que tendrán lugar dentro de tres años. Pero vamos al lío y tratemos de hacer un pequeño resumen de lo que han sido y son las Jornadas de Teatro de Eibar.*

*La actividad de teatro en la*



2002 - Alfonso Sastre, Fernando Arrabal, Ignacio Amestoy

Eibarko Unibertsitate Laboraleko antzerki-jarduera unibertsitatearen fundazioarekin batera hasi zen, 68/69 ikasturtean, Juan Ortegaren zuzendaritzapean. Bi urte geroago, Juan Ortegak berak eta une hartan antzerkian zebiltzan partaideek taldeari izen bat jartzea erabaki zuten, Tarragonan egin zen Unibertsitate Laboralen Lehen Antzerki Lehiaketa Nazionalean parte hartzeko; lehiaketa hartan hirugarren saria eta eszenografia onenaren saria lortu zituen taldeak, Gabriel Celayaren El relevo lanarekin. Narruzko Zezen izena jarri zitzaion taldeari, gaur egunera arte iraun duena.

Narruzko Zezen taldearen jardueren barruan, 70eko hamarkadaren hasierako antzerki independenteko

*Universidad Laboral de Eibar comenzó con su fundación en el curso 68/69 bajo la dirección de Juan Ortega. Dos años después, él mismo y los participantes en la actividad en ese momento decidieron ponerle un nombre al grupo para participar en el Primer Certamen Nacional de Teatro de Universidades Laborales, que tuvo lugar en Tarragona, y en el que obtuvo el tercer premio y premio a la mejor escenografía, con la obra "El relevo" de Gabriel Celaya. Ese nombre fue, y sigue siendo, Narruzko Zezen.*

*Dentro de las actividades de Narruzko Zezen se fueron organizando representaciones teatrales abiertas al público de Eibar de los grupos más significativos del teatro independiente de los primeros años setenta, tanto del País Vasco como del resto de España, bajo el*




2002 - Fernando Beorlegui

talde esanguratsuenen emanaldiak antolatu ziren, Antzerki Jardunaldiak izenpean, bai Euskal Herrikoak, bai Espainiako beste herrialdeetakoak. Emanaldi haiek ez zuten jaialdi-egiturarik, eta hortik izena. 1977an eman ahal izan zitzaien egitura hori, eta izen horrekin jarraitu zuten, ordurako oso ezagunak zirelako; hala ere, aurreko edizioei ez zitzaien zenbakirik jarri, eta 77koak jotzen dira lehen jardunalditzat. Narruzko Zezenen bezala, Juan Ortega izan zen jardunaldien zuzendari artistikoa emanaldiak zenbatzen hasi zirenean, eta José María Cornago ere batu zen antolaketa-taldera.

*nombre de Jornadas de Teatro. Estas no tenían estructura de festival, de ahí su nombre. Y fue en 1977 cuando se les pudo dar dicha estructura manteniéndose el nombre porque ya eran ampliamente reconocidas, si bien no se numeraron las anteriores ediciones y se comenzaron como primeras las del 77. Al igual que en Narruzko Zezen, Juan Ortega fue el director artístico de las Jornadas cuando estas empezaron a numerarse y se incorporó al equipo de organización José María Cornago.*

*Allá por el año 1977 tomamos la decisión de comenzar a numerar las*



2008 - Narruzko zezen

1977an, urtero antolatzen genituen antzerki-jarduerak zenbatzen hasteko erabakia hartu genuen. Unibertsitate Laboraleko Areto Nagusian antzerki-egitarau txiki bat eskaintzen zen, eta handik pasatzen ziren antzerki independentearen konpainia asko. Gogoan izan behar da Unibertsitate Laboralak 1968an ekin ziola bere ibilbideari, eta, batetik, espazioak, azpiegiturak eta bokazioa eta borondatea zuten irakasleak izatea, eta, bestetik, kultur ekimenetan parte hartzeko prest zeuden ikasleak egotea, harrobi ezin egokiagoa zen agitazio kulturala gerta zedin. Eta agitazio kultural horren barruan,

*actividades teatrales que puntualmente organizábamos todos los años. El Salón de Actos de la Universidad Laboral albergaba una pequeña programación de teatro, por la que pasaban mayormente las compañías del llamado teatro independiente. Recordar que la Universidad Laboral había iniciado su andadura en el año 1968, y el disponer de espacios, infraestructuras y un profesorado con vocación y voluntad, además de un alumnado dispuesto a participar en las diferentes iniciativas culturales en el período extraescolar, eran el caldo de cultivo perfecto para que se diera la agitación cultural que se produ-*




2012 - Juan Ortega, Chema Cornago

Antzerki Jardunaldiak izango zirenen lehen aurrekariak ditugu: Narruzko Zezen antzerki-taldea, hainbeste urtetan eszenaratutako antzerki-lanekin, eta Unibertsitate Laboralak antolatzen zuen antzerki programazioa.

Unibertsitate Laboraleko pedagogia- eta zuzendaritza-taldeek planteatzen zuten helburua zera zen: ikasleak aberastuko zituzten kultur jarduerak sortzea eskolaz kanpo. Ikasle horiek Eibarkoak eta Euskal Herrikoak ziren, eta baita Espainiako probintzia guztietatik etorritakoak ere; zortziehun gaztetik gora, barnetegian bizi zirenak. Horrela, Narruzko Zezen antzerki-

*jo. Y dentro de esa agitación cultural nos encontramos con los primeros antecedentes de lo que se convertirían en las Jornadas de Teatro: el grupo de teatro Narruzko Zezen, con los montajes teatrales, que durante tantos años han llevado a escena, y la programación teatral que la Universidad Laboral organizaba.*

*El objetivo que se planteaban los equipos pedagógicos y directivos de la Universidad Laboral era generar actividades culturales que enriquecieran al alumnado durante su período no formativo, durante su período extraescolar. Este alumnado estaba compuesto por personas de Eibar y pueblos vascos, pero*




2017 - Kartelak Unin

talde eta -tailerraz gain, Unibertsitate Laboralak kultur programazio zabal bat zuen, eta hainbat jarduera antolatzen zituen: argazki-tailerra, zeramika-tailerra, zine-kluba, musika-tailerra, tuna, irrati-tailerra eta hainbat kirol-talde.

Baina itzul gaitezen Antzerki Jardunaldietara. Narruzko Zezen taldearen lanak eta antolatzen zen antzerki-programazioak adoretuta, Unibertsitate Laboraleko pedagogia- eta zuzendaritza-taldeak Jardunaldi formatua eman zien jarduera haiei, eta 1977tik aurrera zenbakitu egin behar zirela erabaki zuen... Eta gauza bat eta bestea dela, eta gaiaz eztabaidatu ondoren, zenbaketa urte hartatik aurrera hasiko zen.

*también de los provenientes de casi todas las provincias de España, más de ochocientos jóvenes, que vivían en el internado. De esta manera, además de Narruzko Zezen, como grupo y taller de teatro, la Universidad Laboral disponía de una programación cultural que se componía de un taller de fotografía, un taller de cerámica, cine club, talleres de música, una tuna, taller de radio y de diversos equipos deportivos, entre otros servicios.*

*Pero volvamos a las Jornadas de Teatro. El quehacer de Narruzko Zezen más la programación teatral que se organizaba llevaron al equipo pedagógico y directivo de la Universidad Laboral a encapsular esas actividades en el formato de Jornadas, y desde el año 1977*



2018 - Aurkezpena

Jardueren antolaketan oso garrantzitsuak dira pertsonak. Pellokeria dirudi, baina esan beharra dago. Unibertsitate Laboralak (gero-ago Hezkuntza Esparrua) Eibarko Antzerki Jardunaldiekin egindako kultur lanean, azpimarratu egin behar da jada gurekin ez dagoen José María Cornago Chemak eta Juan Ortegak egindako lana. Eurak izan dira Antzerki Jardunaldien bultzatzaile, sostengu eta zutabe, bai eta kultura-jarduera horren dinamizatzaile ere, eta, Juan Aldayren laguntzarekin —hezkuntza-zentroan lanean hasi zenetik—, lortu ere lortu dute ehundaka gaztek arte eszenikoen arlo desberdinekin eta beste kultura-diziplina batzuekin harremanetan jartzea, hainbat funtzio betez: aktore jardun dute, zuzendari, diseinatzaile,

*llegaron a la conclusión de que había que numerarlas… Y entre una cosa y otra, y tras los oportunos debates, dicha numeración comenzaría desde el uno, y de ese año.*

*En la organización de las actividades son muy importantes las personas. Es una obviedad, pero hay que decirlo. En el trabajo cultural realizado por la Universidad Laboral, posteriormente Complejo Educativo, con las Jornadas de Teatro de Eibar, se debe destacar el trabajo realizado por el queridísimo y tristemente desaparecido Chema, José María Cornago, y por Juan Ortega,. Han sido los impulsores, el soporte y las columnas que han sustentado durante tantos años las Jornadas de Teatro y los dinamizadores de esta actividad cultural consiguiendo que centenares de jóve-*



2018 - Los visitantes

teknikari, kudeatzaile, aretozain, zamalanetako langile, kartel-banatzaile eta abar. Eta arte eszenikoen dinamizazio-lan horretatik igarotako pertsona asko antzerkiaren profesional bihurtu dira. Besteak beste, Imanol Arias, Iñaki Miramón, Manu Agredano, Roberto Novoa, Iván Corbillón, Igor Estévez, Ruben Gallardo, Ricardo Martín, Nuria Martín, Nerea Gómez, Ainara Unanue, María Díaz, Vanesa Conde edo Joana Quesada aktoreak; baita ingeniaritza eszenikoko teknikariak ere, hala nola Manuel Murillo, Juan Luis V. Fraguas edo Juanjo Pérez; eta kudeatzaileak, esaterako, Erika Rodríguez Horrillo, jardunaldien antolaketan laguntzen jarraitzeaz gain, Edinburgoko Assembly Festivalen antzerki-operadore gisa

*nes se relacionaran con las artes escénicas en sus distintas facetas y otras disciplinas culturales, acompañados desde su incorporación al centro educativo por Juan Alday. Desde subirse al escenario como actrices y actores, pasando por el papel de directores, diseñadores, técnicos, gestores, acomodadores, personal de carga y descarga, pegadores de carteles y casi todas las funciones que se nos puedan ocurrir que conllevan las artes escénicas. Y de esa labor de dinamización de las artes escénicas han salido muchas personas que han terminado como profesionales del teatro en sus diversas facetas. Podemos mencionar a los actores Imanol Arias, Iñaki Miramón, Manu Agredano, Roberto Novoa, Iván Corbillón, Igor Estévez, Ruben Gallardo o Ricardo Martín y a las actrices Nuria*




2019 - Concha Velasco Ipuruan

eta Lara Antzokian ere lan egin izan duena; edo Elena Martínez ekoizle eta banatzailea, beste erakunde batzuen artean Pentación eta Teatro de La Abadiarekin lan egindakoa.

Jardunaldiak kudeatzeko moduak askotarikoak izan dira. Hasieran Unibertsitate Laboralak berak antolatutako eskolaz kanpoko jardueren programa gisa hasi zena, 100.000 pezetara iristen ez zen aurrekontuarekin (600 € gaur egun), Uni Kultur Elkartearen eskuetara igaro zen. Uni Kultur Elkartea 1986ko martxoan eratu zen, eta 2012ra arte José María Cornago Chema izan zuen buru. 80ko harmarkadaren amaieran aurrekontuak 8.500.000 pezetara (51.000 €) iristen ziren, 90eko hamarkadaren amaieran 15.000.000 pezeta ingurukoak ziren (90.000 €), eta 2012. urtean 190.000 eurokoak. Urte horretan,

*Martín, Nerea Gómez, Ainara Unanue, María Díaz, Vanesa Conde o Joana Quesada; pero también a técnicos de ingeniería escénica, como son Manuel Murillo, Juan Luis V. Fraguas o Juanjo Pérez, y a gestoras, como Erika Rodríguez Horrillo, que además de seguir colaborando en la organización de las Jornadas, trabaja como operadora teatral en el Assembly Festival de Edimburgo y ha trabajado en el Teatro Lara, o la productora y distribuidora Elena Martínez, que ha trabajado entre otras entidades con Pentación y Teatro de La Abadía.*

*Las maneras de gestionar las Jornadas han sido diversas. Lo que comenzó como programa de actividades extraescolares organizado por la propia Universidad Laboral y con un presupuesto que no llegaba a las 100.000 pesetas (600 € de ahora), pasó a manos de Uni*



2020 - Prentsa aurkezpena

eta Chema Cornago hil ondoren, Uni Kultur Elkarteak Antzerki Jardunaldiak kudeatzeari uzteko erabakia hartu zuen, eta, hala, kudeaketa-lana Udalaren eskuetara igaro zen, nahiz eta Udalak elkarteko kideen laguntza izan duen eta izaten jarraitzen duen, jardunaldiak programatu eta gauzatzeko orduan. 2024ko edizioak 227.000 euroko aurrekontua izan du.

Programazioa eta antolaketa gero eta konplexuagoa zen.70eko hamarkadaren hasieran oraindik izenik gabe eta Laboralaren funts propioekin hasi zena, 80ko hamarkadan Eusko Jaurlaritza-ren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren laguntza jasotzen hasi zen. Komunikabide askok eman zuten jar-

*Kultur Elkartea, asociación ligada a la Universidad Laboral, que se constituyó en marzo de 1986, presidida hasta el año 2012 por José María Cornago, Chema, con presupuestos que alcanzaban los 8.500.000 de pesetas (51.000 E) a finales de la década de los ochenta, los 15.000.000 de pesetas (90.000 €) a finales de la década de los 90, o los 190.000 del año 2012. Ese año, y tras el fallecimiento de Chema Cornago, Uni Kultur Elkartea toma la decisión de dejar de gestionar las Jornadas de Teatro, pasando éstas a manos del Ayuntamiento, quien siguió y sigue contando con los miembros de Uni Kultur Elkartea a la hora de elaborar la programación y ejecución de las mismas. El presupuesto con el que ha contado la edición de 2024 es de 227.000 €.*



2023 - La maleta

dunaldien berri: Diario Vasco, El Correo, Deia, Radio Eibar, Radio Nacional, Euskadi Irratia, Radio Popular, Onda Cero, Radio Marca, jada existitzen ez den KTB eta beste hainbat. Era berean, Eibarko ostalaritzak, saltokiek eta enpresek Antzerki Jardunal-dien lagun egin ziren. Eta, nola ez, herriko kultura- eta kirol-erakundeak, hala nola Eta kitto, Eibar Kirol Elkartea eta Klub Deportiboa, besteak beste.

Antzerki Jardunaldien berrogeita zazpi urte hauetan zehar, eta Debabarreneko Eskola Antzerkiaren Erakustaldiko Antzerki Jardunaldien hogeita hemeretzi urteetan, 1.000 antzerki-emanaldi profesional baino gehiago antolatu dira Eibarren. 815 inguru, gutxi gorabehera, Antzerki Jardunaldiei dagozkie, eta 201 Debaba-rreneko Eskola Antzerki

*Con el incremento de programación y complejidad en dicha organización, lo que se inició a principios de la década de los setenta, todavía sin la denominación de Jornadas, con fondos propios de la Universidad Laboral, en la década de los ochenta, comenzó a contar con el apoyo de las instituciones públicas como son el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Eibar. Los medios de comunicación locales como El Diario Vasco, El Correo, Deia, Radio Eibar, Radio Nacional, Euskadi Irratia, Radio Popular, Onda Cero, Radio Marca, la desaparecida KTB y otros se volcaron con las Jornadas. De la misma forma, la hostelería, comercios y empresas de Eibar se hicieron partícipes de las Jornadas de Teatro. Y como no, entidades culturales y deportivas del municipio como son la Sociedad*




2024 - Coliseo

Erakustaldiari, Debabarreneko eskola-taldeen antzezpenak zenbatu barik.

Eibarko Antzerki Jardunaldiek eszenatoki asko erabili dituzte: Unibertsitate Laboraleko Areto Nagusia eta gimnasioak, jada existitzen ez den Amaya Antzokia, San Andres Eliza, herriko plazak eta kaleak, kafe-antzokiko emanaldiak izan zituzten tabernak, eta 2007tik, Coliseo zaharberritua.

Berrogeita zazpi urte hauetan, inaugurazio-solasaldietan parte hartu duten arte eszenikoetako pertsona ospetsuen zerrenda oso luzea da. Esan daiteke XX. mendeko azken hamarkadetan eta XXI. mendeko

*Deportiva Eibar, el Club Deportivo, …eta kitto!, entre otras.*

*A lo largo de esos cuarenta y siete años las Jornadas de Teatro y de los treinta y nueve de la Muestra de Teatro Escolar del Bajo Deba, que se puso en marcha en 1985, se han organizado más de 1.000 representaciones profesionales de teatro en Eibar. 815 aproximadamente corresponderían a las Jornadas de Teatro y 201 a la Muestra de Teatro Escolar del Bajo Deba, sin contar en ésta las representaciones de los grupos escolares del Bajo Deba.*

*Las Jornadas de Teatro de Eibar han utilizado el escenario del Salón de Actos y gimnasios de la Universidad Laboral, el del desaparecido Teatro Amaya, la*




2024 - Gorka Aizpurua

lehen hamarkadetan Euskal Herrian eta Espainian egin den antzerkigintza onenaren ordezkaritza direla. Zerrenda horretan interpretazio, zuzendaritza, dramaturgia eta ekoizpen arloko pertsonalitate handiak daude. Denak zerrendatzea ezinezkoa izanik, aipatu beharrekoak dira antzerkigile eta zuzendari hauek: Fernando Arrabal, Alfonso Sastre, José Luis Alonso de Santos, Ignacio

*Iglesia de San Andrés, las plazas y calles del municipio, bares que albergaron representaciones de café teatro y desde el año 2007, el Coliseo, tras su restauración.*

*El listado de personalidades del mundo de las artes escénicas que han participado a lo largo de estos cuarenta y siete años en las charlas–coloquio inaugurales es muy extenso. Se puede*




2016-Buena gente

Amestoy, Juan Diego Botto, Patxo Tellería, Fernando Bernués, Miguel del Arco, Juan Carlos Rubio, Ernesto Caballero, Roberto Herrero, Carlos Gil, Antonio Giménez Rico, Salvador Távora eta Albert Boadella. Horietako askok zuzendaritza-lanetan ere jardun dute; aktoresen artean, Concha Velasco eta Lola Herrera aktoreak, Jesus Cimarro antzerki-ekoizleaz lagunduta, Nuria Espert, Maribel Verdú, Esperanza Roy, Ane Gabarain, Luisa Martín, Verónica Forqué, Las Virtudes, Lolita Flores, Gurutze Beitia, María Adánez eta Anabel Alonso; solasaldira etorri diren aktoreen artean, Imanol Arias, Iñaki Miramón, Emilio Gutiérrez Caba, Rafael Alvarez el Brujo,

*decir que son una representación de lo mejor que se ha hecho en el teatro vasco y español de las últimas décadas del siglo XX y de estas primeras del siglo XXI. En dicho listado encontramos a grandes personalidades de la interpretación, dirección, dramaturgia y producción. A riesgo de olvidar alguno mencionaremos a los dramaturgos y directores Fernando Arrabal, Alfonso Sastre, José Luis Alonso de Santos, Ignacio Amestoy, Juan Diego Botto, Patxo Tellería, Fernando Bernués, Miguel del Arco, Juan Carlos Rubio, Ernesto Caballero, Roberto Herrero, Carlos Gil, Antonio Giménez Rico, Salvador Távora y Albert Boadella. De estos, muchos de ellos también en tareas de dirección; a las actrices Concha Velasco y Lola Herrera,*




2021 - Iratxe Unanue

Adolfo Marsillach, Jesús Puente, Juan Tamariz, Alexis Valdés, Eloy Arenas, Juan Echanove, Gonzalo de Castro, José Sacristán, Manuel Galiana, Juan Diego, José Luis López Vázquez, Josep María Flotats, Ramón Barea, Mikel Losada, Pepón Nieto, los Golden Apple Quartet; eta Pedro Barea, Roberto Herrero eta David Barbero kritikariak.

Arestian aipatutako pertsonalitate horietako batzuek antzerkiaren eta artearen hainbat alderditan lan egin dute, dramaturgia, zuzendaritza eta interpretazioa bateratuz.

Eibarko Antzerki Jardunaldiek eta Eskolako Antzerki Erakustaldiak hainbat artista plastiko ere izan dituzte kartelen diseinuan. Besteak beste, Fernando Beorlegui, Iñaki Larrañaga, Damarís Pan, Leire

*ambas acompañadas por el productor teatral Jesús Cimarro, Nuria Espert, Maribel Verdú, Esperanza Roy, Ane Gabarain, Luisa Martín, Verónica Forqué, Las Virtudes, Lolita Flores, Gurutze Beitia, María Adánez y Anabel Alonso; entre los actores que han acudido al coloquio nos encontramos con Imanol Arias, Iñaki Miramón, Emilio Gutiérrez Caba, Rafael Alvarez "el Brujo", Adolfo Marsillach, Jesús Puente, Juan Tamariz, Alexis Valdés, Eloy Arenas, Juan Echanove, Gonzalo de Castro, José Sacristán, Manuel Galiana, Juan Diego, José Luis López Vázquez, Josep María Flotats, Ramón Barea, Mikel Losada, Pepón Nieto, los Golden Apple Quartet; y los críticos Pedro Barea, Roberto Herrero y David Barbero.*

*Añadir que personalidades mencionadas en el párrafo anterior han trabaja-*

Kareaga, Esperanza Zabala, Gorka Aizpurua, Andoni Zabala, Martín Azpilikueta, Ohiana Lasuen, Iratxe Unanue, Elena Ortega, Javier Fernández, Paula Pinilla, Aitziber Ciarsolo eta Sonia Escalante.

Jardunaldien helburua antzerkia Eibarko eta inguruetako herritarrengana hurbiltzea izan da. Zentzu horretan, bai Jardunaldiek, bai Eskolako Antzerki Erakustaldiak publikoaren laguntza izan dute, eta honek erantzun egin dio beti aurkeztutako programazioari. Asko dira Jardunaldietan antzerki-emanaldi batera lehen aldiz joan diren pertsonak. Eta beti Chema Cornagok aurkezpenetako batean zuhurki azaldu zigun gogoeta hori betez: “Antzerki Jardunaldiak Eibarkoak dira, gure herrikoak, herri ekintzaile, adoretsu, kultu eta erakargarri batekoak, pasioez eta tradizioez asko dakiena, amore ematen ez duena eta inoiz emango ez duena. Gure Jardunaldiek keinu egiten diote bizitzari bere forma guztietan: zoro eta lotsagabe, lainezaz betea eta pikaro, sarritan arlote, doilor, eta inoiz kalezale eta puta, nik esan ohi dudan moduan. Antzerkian gauza asko kontsagratzen dira: malenkonia eta tristura, drama eta irribarrea, esperantza eta etsipena, umorea eta xelebrekeria. Antzerkiak ispilu handi bat

*do en distintas facetas del arte y oficio teatral, aunándose la labor de dramaturgia, dirección, interpretación, etc...*

*Las Jornadas de Teatro de Eibar y su festival de teatro infantil, la Muestra de Teatro Escolar, han tenido también la fortuna de contar con diversos artistas plásticos en el diseño de los carteles. Entre ellos debemos mencionar a Fernando Beorlegui, Iñaki Larrañaga, Damarís Pan, Leire Kareaga, Esperanza Zabala, Gorka Aizpurua, Andoni Zabala, Martín Azpilikueta, Ohiana Lasuen, Iratxe Unanue, Elena Ortega, Javier Fernández, Paula Pinilla, Aitziber Ciarsolo y Sonia Escalante.*

*El objetivo de las Jornadas ha sido acercar el teatro a la ciudadanía de Eibar y pueblos aledaños. En ese sentido, tanto las Jornadas, como la Muestra de Teatro Escolar, han contado con la complicidad del público, respondiendo éste a la programación presentada. Son muchas las personas que han acudido a su primer espectáculo teatral en la Muestra. Y siempre cumpliendo con esa reflexión que tan sabiamente nos expuso Chema Cornago en una de las presentaciones: “Las Jornadas de Teatro son de Eibar, nuestro Eibar, ciudad emprendedora, animosa, culta y seductora que sabe mucho de pasiones y de tradiciones, que no se rinde, ni se rendirá nunca. Nuestras Jornadas son un guiño a la vida, exuberante y golfa, con-*

jartzen du gizartearen aurrean eta den bezalakoa islatzen du."

Berrogeita zazpi urte hauetan, Eibarko Antzerki Jardunaldien beste helburu garrantzitsuenetako bat euskal antzerkiari eta euskal konpainiei eman dieten, ematen dieten eta emango dieten laguntza, babesa eta bultzada izan da. Horien artean, desagertutako konpaini batzuk, hala nola Geroa, Orain, Bederen Bat, eta baita Tanttaka, Hika, Teatro Paraíso, Marie de Jongh, Artedrama, Gorakada, Vaivén Producciones, Txalo, Tartean, Ados Teatro, Markeliñe…

Antzerki Jardunaldietan nabarmendu beharreko mugarrien artean, honako hauek aipa daitezke: 1985eko edizioan MOMIX konpainia iparramerikarra Amaya Antzokira ekartzea lortu zen; 80ko hamarkadan, Horacio Czertoken Teatro Núcleo ikuskizuna; Alfonso Sastreren La taberna fantásticaren emanaldia, Rafael Álvarez El Brujok maisuki interpretatua 1987an; Abel eta Gordonen La danse del poules ikuskizuna, Avignongo jaialditik Eibarrera 1990eko edizioan ekarri zena; Narruzko Zezen taldeak Expo 92an parte hartzea; eta, nola ez, azken

*sentida y pícara, tantas veces canalla y en ocasiones callejera y puta, como me gusta decir. En el teatro se consagran muchas cosas: lo melancólico y lo triste, lo dramático y lo risueño, lo esperanzado y lo desesperado, el humor y la excentricidad. El gran teatro consiste en poner un gran espejo delante de la sociedad y reflejarla como es”.*

*Otro de los objetivos más importantes a lo largo de estos cuarenta y siete años ha sido el apoyo, cobertura e impulso que las Jornadas de Teatro de Eibar han dado, dan y darán al teatro vasco y sus compañías. Entre ellas, a riesgo de olvidar algunas, mencionar a las desaparecidas Geroa, Orain, Bederen Bat, pero también a Tanttaka, Hika, Teatro Paraíso, Marie de Jongh, Artedrama, Gorakada, Vaivén Producciones, Txalo, Tartean, Ados Teatro, Markeliñe…*

*Entre los hitos a destacar por las Jornadas de Teatro se pueden mencionar varios: la edición de las Jornadas del año 1985 consiguió que la compañía norteamericana MOMIX actuara en el desaparecido Teatro Amaya; en la década de los ochenta la participación Teatro Núcleo de Horacio Czertok; la representación de “La taberna fantástica” de Alfonso Sastre, interpretada*

hamarkadetako gaztelaniazko antzerkigile onenetako bi, Alfonso Sastre eta Fernando Arrabal, biltzea lortu zen 2002ko 25. edizioan, Ignacio Amestoy, Patxo Telleria, Ernesto Caballero eta Roberto Herrerok lagundurik.

Hiru edizio barru, 2027. urtean, Antzerki Jardunaldiak 50. ediziora iritsiko dira. Eskerrak eman nahi dizkiogu Arrate Elkarte Filatelikoari Exfibarren omendutako erakunde eta ekitaldien zerrendan parte hartzera gonbidatzeagatik. Memoria-ariketa hau —Antzerki Jardunaldien berrogeita zazpi urteak folio gutxi batzuetan laburbiltzen saiatzea— izan da berrogeita hamar urte horiek ospatzeko antolatuko ditugun lehen ekintzetako bat.

Bizi luzea Exfibarri! Bizi luzea Jardunaldiei!

**EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK**

*magistralmente por Rafael Álvarez “El Brujo” en el año 1987; el espectáculo “La danse del poules” de Abel y Gordon, que se logró traer desde el festival de Avignon a Eibar en la edición de 1990; la participación de Narruzko Zezen en la Expo 92; y como no, conseguir reunir a dos de los mejores dramaturgos en lengua castellana de las últimas décadas, como son Alfonso Sastre y Fernando Arrabal, en la edición vigésimo quinta del año 2002, acompañados por Ignacio Amestoy, Patxo Telleria, Ernesto Caballero y Roberto Herrero.*

*Dentro de tres ediciones, en el año 2027, las Jornadas de Teatro llegarán a su quincuagésima edición. Agradecemos a la Asociación Filatélica Arrate que nos haya invitado a formar parte de su listado de entidades y eventos homenajeados en su Exfibar. Este ejercicio de memoria, de tratar de resumir en unos pocos folios los cuarenta y siete años de existencia de Jornadas de Teatro, se convierte en uno de las primeras acciones que llevaremos a cabo en los diversos actos que organizaremos en la conmemoración de los cincuenta años.*

*¡Larga vida a la Exfibar! ¡Larga vida a las Jornadas!*

**JORNADAS DE TEATRO DE EIBAR**

Arrate Filatelia Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie babesa emanez lagundu duten guztiei.

***La Asociación Filatélica Arrate quiere agradecer la colaboración de todos y cuantos han participado con su apoyo.***

**BABESLEAK**
PATROCINADORES

EIBAR Udala | Ayuntamiento

kutxabank

**LAGUNTZAILEA**
COLABORA

mantein

**ANTOLATZAILEA**
ORGANIZA

ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIA ELKARTEA
EIBARKO
EIBAR